

Euskal Zuzenbide Zibilaren Legeak berritasunak ekarri ditu udazkenetik hona; oinordetzetan, bereziki. Foru zuzenbideko berezitasunez harago, auzotasun orokor bat zedarritu du Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako.

Auzotasun batuaren aroa da

Arantxa Iraola

Iazko ekainaren 25ean onetsi zuen Eusko Legebiltzarrak Euskal Zuzenbide Zibilaren Legea, eta iragan udazkenetik indarrean da. Aldaketak ekarri ditu, bereziki, oinordetzarekin lotutako gaietan. Izan ere, herentzietan lotutako edukiek mamitzen dute, batez ere, legea. Hala ere, zuzenbide zibilari buruzko lege orokor bat aurrera eramateko oinarria dela defendatzen du Juanjo Alvarezek: Nazioarteko Zuzenbide Pribatuen katedraduna da, EHU Euskal Herriko Unibertsitatean irakaslea. «Lege honek atari antzeko bat izan nahi du gai gehiago sartuz joateko», azaldu du. «Etorbizuneko legegileek bidea izango dute beste alor batzuk ere erantsiz joateko».

Lege berriaren aldaketa agerikoenetariko bat da auzotasun zibil bakar bat —herrialdeka foru zuzenbideak mendez mende taxututako zenbait berezitasun guztiz baztertu gabe— ekarri duela Araba, Bizkai eta Gipuzkoarako: «Euskal auzotasun zibila». Geroan euskal zuzenbide zibila oinordetzekin lotutako gajez harago garatzen jarraitzeko oinarritzko deritza Alvarezek. «Gu hasieran gaude, baina zuk hartzen duzu, esaterako, Kataluniako kidea, eta kode zibil alternatibo bat da; kodeak arautzen dituen gai guzti-guztiak arautzen ditu: era propioan». Bat dator Andres Urrutia notarioa, Zuzenbidearen Euskal Akademiako lehendakaria. Alvarezen gisan, auzotasun bakar bat izatea giltzarri deritza; legearen aldaketa esanguratsue-

na, hain zuzen ere, horixe dela argi du. Izan ere, hori izango da «lotura puntu» ezinbestekoa lege hau zuzenbide zibilaren «esparru berrietara» ere zabaldu ahal izateko.

Foru zuzenbidearen lorratzak bizi iraun du oinordetza kontuetan Euskal Herri osoan: gaur arte. Horren ondorioz, auzotasun bat baino gehiago daude. Nafarroa berezkoa dute. Euskal Autonomia Erkidegoan, hainbat daude: Aiaraldeko (Araba) auzotasunak, Bizkaiko forudunenak, eta Gipuzkoan baserriak oinordetza lagatzen zenbait berezitasun onartzen dituenak indarrean dira. Baina eremu geografiko horietatik lekora bizi zirenek zuzenbide zibil orokorra erabiltzea beste biderik ez zuten orain arte. Eta horiei ate berriak irekitzea izan du jomuga legeak; lurraldeko berezitasunak guztiz baztertu gabe. «Nolabait ere, berezitasun horiek gordetzen dituztenak izango dira auzotasun bakar baten pean geratzen diren azpiauotasunak», azaldu du Alvarezek. Zentzuzkoa iruditzen zaio Urrutiarri. «Oinordetzaren aldeetik guk baguenen eta badugu enborra, sustraia, oinarria, eta hori baliatu dugu», azaldu du. «Orain inportanteena da gune juridiko erkidea daukagula guztiztatzat».

Batasunaren bidetik

Gontzal Aizpurua abokatua da, eta Zuzenbidearen Euskal Akademiako zuzendaritzako kidea. Euskara batuaren oinarriak jartzeko 1960ko hamarkadan martxan jarri zen prozesua lege hau egiteko erabili denarekin erakartzeko iruditzen zaio. «Eus-



ZAZPI GAKO

«Aldatu egin beharko al dira aurreko testamentuak?». Lege berria onartu zenetik itaun horrekin jende asko doakiela esan du Andres Urrutia notarioak. Bilbon dihardu, eta astero lege berriak ekarritako kontsultak dituzte. Kasuan kasuan erabaki behar dela uste du. «Esaterako, baldin eta asmoa badaukazu ezkontideari ahalik eta gehien emateko, orain gehitu egin dezakezu alargunak har dezakeen herentziaren zatia». Kasu horretan, zentzua luke agiri berri bat egiteak. Testamentu denak aldatzea ezinbestekotzat ez du, ordea. «Bete daitezke batere problemarik gabe. Egin dena da askatasun gehiago eman; beraz, lehengo xedapenak sartzen dira oraingo legean». Herriar askok orain arte erabili ezin zituzten bideak —auzotasun bakar batzuei onetsia— dakartzat denentzat. Hona deigarrienak:

1 Senipartea apalagoa da, eta banatzeko libreagoa.

Lege berria onartu aurretik, tokiko auzotasunaren arabera, lau bosten edo bi heren utzi behar zitzaizkien ondorengoei. Seme-alabei edo bikotekideari derrigorrean

utzi beharreko senipartea zen hori. Aiaraldea (Araba) zen salbuespen bakarra; hango auzotasuna dutez gabe, Nafarroa bezala, guztiz libre da nori uzten zaion ondarea, eta halaxe izango da aurrerantzean ere. Gainerakoentzat, senipartea nabarmen urritu da: ondasunen heren batera. Seniparte «hertsia» izaten zen lehen, gainera, hainbat tokitan: derrigorrean seme-alaba guztiei utzi behar zitzaizkien zati bat. Orain, derrigorrezko zati hori bana daiteke gura den gisan, eta hauta daiteke seme-alabaren bat deus gabe lagatzea. Urrutiak azaldu duenez, notariozaren era horretako aldaketa eskariak usu ikusi dituzte lege berria onartu zenetik. «Lehenengo seniparte hertsia sistemaren kontra, askatasun horren bila etorri da jendea». Lege berriak, halaber, kendu egin du aurrekoentzako senipartea; ondorengorik gabe hiltzen diren ondarearen parte batek ez du derrigor joan behar gurasoentzat. Askatasun osoz bana dezake te.

2 Alkar-poderosoaren aukera zabaldu da. Bizkaian tradizioz oinordetza kontuetan foruen abaroen egon diren

lurraldeetan ezaguna da hitza: *alkar-poderoso*. Eta erabilia, batez ere, senar-emazteen artean. Andres Urrutia notarioak ederto ezagutzen du. «Batak besteari ahalik eta botere gehien ematean datza, baten faltan besteak etxearen eta familiaren gobernua eta artamendua eraman ahal izateko: horixe da alkar-poderoso». Gainerako herrialdeetan arrotza da, baina lege berriak bidea eman du euskal auzotasuna duten guztiek, hala nahi badute, ahalorde bat izendatzeko aukera izateko. Ezkontideak babesteko orain legeak beste hainbat bide ere ematen dituela oroitarazi du Gontzal Aizpurua abokatua, eta «leundu» egin dela, horregatik, erakunde horren indarra. Baina garrantzitsutzat du. Hildakoak ahalordearen esku uzten du herentzian utzitako ondarearen gozamenaz gain, kudeaketa. Hortxe dago alkar-poderosoaren ezaugarri nagusia, botere handia ematen baitio horrek bizirik geratzen den ezkontide edo izatezko bikotekideari familia barruan.

3 Bikotekideak babesteko bide gehiago daude. Bikoteen artean —ezkondu edo izatezko bikote— elkarri ba-



Euskalkiak dira gure herrialdeetako foru zuzenbideak; zuzenbide zibil batua, berriz, lege hau»

Andres Urrutia
Notarioa

«Auzotasun zibil ezberdinen ondorioz, egoera zailak izan dira; surrealistikak ere bai, sarri askotan»

Gontzal Aizpurua
Abokatu

«Esaterako, Murtziara bizitzera banoa, gal dezaket auzotasuna; jendeak ez daki askotan, eta ezusteak izaten dira»

Juanjo Alvarez Rubio
Nazioarteko Zuzenbide Pribatuko irakaslea EHU



kararen kasuan ere gauza bera gertatu zen; beharrezkoa izan zen ez iraingitzeko, bateratzea». Bat dator Urrutia –Euskaltzaindiko burua da 2004tik– abokatuaren konparazioarekin. «Euskalkiak dira gure herrialdeetako foru zuzenbideak; eta zuzenbide zibil batua, berriz, lege hau da. Lexikoa-ren eta gramatikaren aldetik, badiu lurralde ezberdinetako ekarpenak», azaldu du. «Orain, ikusi beharko da juristok gauza garen euskal zuzenbide zibilaren esparru horretatik joateko».

Baina bat datoz denak: euskararen iraupen eta garapenerako «estandar» komun bat izatea garrrantzitsua izan zen hein antzekoan, tresna eraginkor bat izango da euskal auzotasun zibila. Onerako. Bizkaian bederen, herrialde berean esparru forodunak eta forugabeak izanda, egoera konplexu asko ikusi ditu bere abokatu jardunean Aizpurua, eta hala-koak saihesteko bidea izango den itxaropena du. «Izan ere, auzotasun zibil ezberdinen ondorioz, egoera zailak izan dira; surrealistikak ere bai, sarri askotan».

Auzotasuna ez da betiko

Auzotasuna –edo tokian tokiko azpiauzotasunak– lortzeko hiru bide daude. Lehenengoa da gurasoek edukitzea, eta haiengandik jasotzea. Bigarrena, bi urte baino gehiagoan toki batean bizitzen egotea eta auzotasuna izateko eskakizuna egitea. «Herriko erregistroira joan behar duzu esaten euskal auzotasuna nahi dudula, edo tokiari dagokion azpiauzotasuna», azaldu du Alvarezek. Hirugarrena da hamar urtean baino gehiagoan tokian bizitzen egotea: orduan ez da eskaririk ere egin behar. «Egunotan hitzaldiak ematen nabil gai honi buruz. Eta etortzen zaizkit, esaterako, orain dela hamarkada zenbait Espainiako hainbat herrialdeetatik bizitzera etorritakoak. Hori esaten diet guztiek ja euskal auzotasuna dutela», esplikatu du. Ondasunak dauden tokian daudela ere ezartzen da: «Izan daitezke Torremolinosen [Andaluzia, Espainia] dauden etxeak. Kasu horietan ere, hildakoak zuen auzotasuna aintzat hartu behar da».

Espainiako naziotasunak ez duten pertsonetan bakarrik izaten da ezberdina jokabidea. Herritar horiei bi urte pasatu aurretik ere ezar dakieke EAeko legea, baldin eta propio ez badute eskatuta –«deklarazio bat egin behar dute horretarako»– beren jatorrizko herrialdeko irizpidearen arabera banatu nahi dutela herentzia. «Nolanahi ere, atzeritarrek ez

dute inoiz auzotasun zibilik; naziotasuna ez duten bitartean, ezin dute auzotasunik eskuratu», azaldu du Alvarez irakasleak.

Auzotasuna ez da betiko. Bala batean Espainiako Astatuaren administraziopeko lurralderen batean bizi, eta, esaterako, gal daiteke. Adibide bat jarri du Alvarezek: «Murtziara bizitzera banoa, gal dezaket auzotasuna han hamar urte baino gehiago egiten baditut; hango auzotasuna ezarriko didate. Jendeak ez daki hori askotan; baina, kasu horietan, auzotasuna galdu egiten da. Horregatik garrantzitsua da hamar urteak, bete aurretik bizileku duzun herriko erregistroira joatea, eta auzotasuna betikotu nahi dudula esatea. *Sine die* izaten da orduan. Baina jende askok ez daki, eta ezusteak izaten dira».

Atzerria bizileku dutenen egoera –Ipar Euskal Herrian bizi diren Hegoaldeko herritarren egoera bera da– ere aztertu du Alvarezek. «Arriskua dute, han hiltzen badira, Frantziako legea ezartzeko. Hori saihesteko, notario batengana joan behar dute, esanez beren auzotasuna errespetatuz banatu nahi dutela oinordekotza. Hori egitea ezinbestekoa da, gainerakoan Frantziako legearen menpe geratzen dira. Denek joan behar lukete notario batengana, eta beren auzotasuna erakutsi behar lukete; Hendaia bizitzera joan zirenean –orain dela hogeitau urte bazen ere– euskal auzotasuna zutela erakutsi behar dute, eta hori aintzat hartzea nahi dutela beren herentzia banatzeko orduan». Administrazioarentzat atzerri diren gainerako bizilekue-tan, berdin. «Australian hiltzen bazara, Australiako legea ezarriko zaizu, baldin eta ez baduzu propio alde aurretik zure auzotasunaren aldeko hatua egin».

«Inposiziorik» gabe

Euskal Zuzenbide Zibilaren Legeak ez duela deus «inposatzen» nabarmendu du Alvarezek; lege «malgua» dela, nahi bada zuzenbide zibil orokorraren irizpideak betetzeko bidea ere ematen diena herritarrei. «Autonomia» da legearen printzipioetako bat, eta horrek Europako Batasunean nagusi diren legedien irizpideetara hurbiltzen duela esplikatu du. «Inposizioaren» gaitetik ituna lehenesteko borondatean, foru zuzenbideak Euskal Herri osoan izan dituen hainbat aldaeratan dagoen muin bateratuaren lortzea ere ikusten du Urrutiak: «Humus bat dago hor, sustrai bat. Iso-morfikoak dira, neurri batean. Sustrai bat eta bakarra dago hor».

besa emateko bide berriak ematen ditu legeak, alkar-poderosoa-ren hautua egin gabe ere. Berez dituzten seniparte eskubideez aparte, bikotearen bizilekuan geratu ahal izango dutela segurtatzeko bideak ematera egin du legeak. Halaxe azaldu du Aizpurua: «Bizirik geratzen den ezkontideak aukera izango du, bizi den artean, familiaren ohiko etxebizitzan bizitzeko». Ondorengoek ez dute biderik izango deus ere eskatzen hasteko.

4 Testamentu mankomunatuak egin daitezke. Foru zuzenbideari atxikitako beste erakundeetako bat da testamentu mankomunatua. Nafarroan, esaterako, erruz erabiltzen dena, eta Bizkaiko eremu forudunetan eta Aramaion (Araba) ere indarrean egon dena. Erkidego oso-ra zabaldu du lege berriak bide hori hautatzeko aukera. «Guztiz onargarria eta onuragarria izan daitezke», azaldu du Aizpurua. Bi lagunek —ez dute zertan bikote harremanik izan— testamentua batera egiteko bidea ematen du. «Izan daitezke, adibidez, nebarrebak; ohikoa izaten da, esaterako, neba-arreba ezkongabeak etortzea esanez nahi dutela bata-

besteari dena uztea biak hiltzen diren bitartean; horrelakoetan, esaterako, oso erabilgarria izaten da», azaldu du Urrutiak.

5 Oinordekotza itunak egin daitezke. Iragan urrunetik dator erakunde hori ere. Baseri giroan, normalean, seme-alabak ezkontzen zirenean egiten zela azaldu du Urrutiak. «Familiak egiten zuten kontratu bat zen, gazteak sartzeko baserriaren ustiaketa lanetan, eta zaharrak baserriaren kontura bizitzeko. Aukeratu izaten zen oinordeko bat baserrian jarraitzeko, eta aukera zuten beste guztiek baserrian bertan eta baserriaren kontura bizitzeko». Lege berrian berreskuratu da tradizioaren aztarna hori, Euskal Autonomia Erkidego osorako. Notaritzan izenpetzen den itun bat da, seme-alabak eta gurasoak uztartzen dituen. «Bitasun» horixe du, hain justu, ezaugarri. Eta zinetan erabilgarria dela uste du Urrutiak. «Guztiz komenigarria izan daiteke, esaterako, enpresa txiki etaertainak transmititu ahal izateko, eta ekartzeko horien kudeaketara jende gaztea». Itun hori Nafarroan eta Aragoian, esaterako, arrunt ohikoa dela azaldu du. Fa-

milia barruko kideen arteko itun bat da normalean, baina familiakoak ez direnekin ere erabil daitezke.

6 Euskaldunagoa da. «Alkar-poderoso, ondazilegia, bidezorra, hilburuko... Terminologia juridiko baten adierazle dira bere txikitasunean», azaldu du Urrutia notarioak. «Ondare lexiko patrimonial bat». Corpusaren berreskuratze hori propio lege berriak aipatzen duela nabarmendu du, eta euskaraz jarduteko bidea ere errazten duela. Legeak gauditu egiten du lehenagoko formula hizkuntzari ematen dion babetesan, eta esparru zabalagoa ezarri. Egokitzat du. «Ez gaude Kataluniako egoeran, baina aurrerapauso bat dakar». Agiri notarialen %3-%5 egiten dira gaur euskaraz.

7 Zenbait berezitasun etsi zaie. Auzotasun bakar bat ezarri den arren, Aiaraldeko (Araba) berezitasunaz gain, Bizkaiko forudunenak ere errespetatuko dira aurrerantzean. Bizkaiko foru zuzenbidearen ezaugarri nabarmenenetarikoa da tronka-lekotasuna: ondare higiezinak banatu gabe eta familia barruan geratzeko aukera ematen du.